

BASAIKO LOREA

Nabarnizko Tomas Ibarguenek kontatuta

Nabarnizko Iluntzar mendian leza bat dago, inork sekula ondorik neurtu bakoia. Leza honek larrez eta otez itsutua dauka beronen ahoa eta nonbait, haizeak eramaniko haziren batzuetatik erneta, basiko bat zuen lehenago, umetxo bat eskutik zuela, igaro zen behin leza inguruan zehar. Umeak basikoaren adarretan lorea ikusita, bere berbetatxoan, hauxe esan zion amari:

- Ama, pitxia.
- Ez maitetxo, kaka dauka-eta.
- Pitxia, pitxia.

Esanda negarrari eman zion lehenago; gero, blaust!!, zapart eginda ota eta lar artean geratu zen ez gora ez behera egin ezinik. Amak, hura ikusita, txilioka, zapart zoli egin zuen. Ama eta ume, ehun sasi zatituaz, beste hainbeste saguzar eta belatxinga leza barrutik uxaturik, geldi-geldika leza barruan amildu ziren. Inork ez daki harrezkeko euren berririk.

Mendi barrenean burdina-ur azal lodia dario atxari. Baserritarrak, ur haren gorritasuna ikusita, ama errukarriaren gonak gorritu daroala uste dute.



Ineritze leizean gertatu omen zen kondaira honek dioena.

Resurrección María de Azkue

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989